



BIDEAN IKASIA

(1993-2016)

Arantxa Urretabizkaia

Pamiela Kondagintza, 33
ISBN: 978-84-7681-966-1
Urtea: 2016 / 144 or.
15x21 cm

12,00 €

*(1993. urtean hondarribiar emakume talde batek alardean parte hartzea eskatu zuen lehen aldiz. Ondorengo historia gogor eta garrantza eta, aldi berean, eder eta hunkigarria saiatuko da kontatzen egilea, gertatutakoaz gogoeta eginez. Mina eta poza, biak dira irakasle onak. Horregatik du liburuak **Bidean ikasia** izenburu.)*

«Inor gutxi izango du kalean ahoz gora iraindua izateko ohitura. Inor gutxi dago horretarako prestatua. Irainzaileak ere ez du seguru asko ohitura hori, baina ekintzek frogatzen dute hobekiago egokitzen dela irainzailea egoera berrira, berak sortua delako egoera hori, berak aukeratu duelako ekintza.

Irainzen duenak uste du, iraindua mintzeko ahalmenaz gain, iraindua umiltzeko boterea ere baduela. Kalean, zuk ezagutzen ez duzun gizon gazte batek *puta* esaten badizu, ez da atsegina, noski. Baina irain berak zure semearen edo bikotekidearen ahotan eragin desberdina luke. Semearenak umilduko zintuzke, kaleko gaztearenak, agian ez. Lastima ere senti dezakezu irainzailearekiko.

[...] Irainaren ezpatak bi aho ditu, eta bigarrenak iraingilea zauritzen du.»

• • • •



ARANTXA URRETABIZKAIA 1947an jaio zen. Kazetari lanbidez, prentsa idatzian, irratan nahiz telebistan egiten du lan.

Idazle gisa poesia idazten hasi zen eta eleberriekin jarraitu. Azken atal honetan, *Zergatik*, *Panpox* (Hordago, 1979), *Koaderno gorria* (Erein, 1998), *3 Mariak* (Erein, 2010), *Zuri-beltzeko argazkiak* (Pamiela, 2014) dira lanik ezagunenak, horiek guztiak gaztelaniaz eta beste hainbat hizkuntzatan argitaratuak.

Maitasunaren magalean poema liburuarekin lortu zuen Kritika saria 1982an eta *3 Mariak* eleberriarekin sari bera 2010ean.

• • • •